**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, terrazen ordenantzari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la ordenanza de terrazas.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la

(Obrak eta Hiri Zerbitzuak) terrazen gaineko ordenantzaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azkeneko urte hauetan terrazen gaineko ekimen bat baino gehiago aurkeztu dugu, gaur egungo premietara eta azken urteetan –Covidaren garaian eta ondoren, bereziki– aldatu diren kontsumo-ohituretara egokitzeko hura.

Hala, 2022ko maiatzean Udalbatzari Terrazen gaineko ordenantzaren arau-proposamena aurkeztu genionean –ordenantza aldatzen hasteko ekimena–, aurkako botoa eman eta lantalde bat sortua zela esan ziguten, eta, ondoren, 2022ko udarako proposamen zirriborroa eginda izango zela iragarri zuen alkateak Diario Vascon.

2023ko urtarrila ere etorri da, ordea, eta oraindik ez dakigu ezer zirriborro haren gainean. Hala, batzordean galdetu eta alkateak erantzun zigun egin zuela lantaldeak bere lana, baina negoziatzen ari direla orain gobernu-taldean eta oraindik ez dagoela zirriborroa prest.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio oposizioko taldeei azaltzeko terrazei buruzko lantaldeak ateratako ondorioak.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio jartzeko ados bi alderdiak eta agintaldi hau bukatu baino lehen aurkezteko terrazen ordenantzaren aldaketa.

Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la ordenanza de terrazas.

JUSTIFICACIÓN

A lo largo de estos años hemos presentado diversas iniciativas relativas a las terrazas con intención de adecuarlas a las necesidades actuales y a los hábitos de consumo que han variado en los últimos años, especialmente durante y después del Covid.

Cuando presentamos a este Pleno en mayo del 22 una iniciativa de proposición normativa para la Ordenanza de Terrazas, para poner en marcha su posible modificación, se votó en contra de la misma y se nos dijo que se había creado un grupo de trabajo para ello y luego, el alcalde, en el Diario Vasco anunció que el borrador de la propuesta vería la luz en verano de 2022.

Llegados al mes de enero de 2023, no se sabe nada de este borrador. Preguntado en la Comisión, el alcalde respondió que el grupo de trabajo había realizado su labor, pero que ahora mismo el tema estaba en negociaciones entre el equipo de gobierno, y que todavía no existe dicho borrador.

Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a poner en conocimiento de los grupos de la oposición las conclusiones del grupo de trabajo sobre terrazas.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta el Equipo de Gobierno a que se pongan de acuerdo entre ellos para que, antes de finalizar el actual mandato, se presente la modificación de la ordenanza de terrazas en la que se ha venido trabajando.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 19an.

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

En San Sebastián, a 19 de enero de 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – PSE-EE, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENCIONES: 1 – PSE-EE, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – (5) EH BILDU, (1) PSE-EE, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ/PNV, (4) PSE-EE, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 6 – (5) EH BILDU, (1) PSE-EE, POR HABERSE AUSENTADO DE**

**LA SALA.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Morlanseko tuneleko bidegorriaren zikinkeriari eta zaintza-faltari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Morlanseko tuneleko bidegorrian dagoen zikinkeriari eta zaintza faltari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2014an, Morlanseko tunela, Lugaritz eta Morlans lotzen dituen bidegorria zeharkatzen duena, Erresuma Batuko «The Guardian» egunkariak argitaratutako bizikletentzako azpiegitura politenen zerrendan agertu zen. Irudi horrek ez du zerikusirik ehunka txirrindularik egunero erabiltzen duten azpiegitura horren egungo egoerarekin.

2017tik 2018ra, tunela itxita egon zen, urtebete inguru, azpiegitura hobetzeko zenbait jarduketa egiteko. Une honetan, tunelak itxura tristea du: grafitiak ditu hormetan, eta lurrean zikinkeria pilatzen da; baina, horrez gain, agian kezkagarriena da jarrita dauden zaintza-kamerek ez dutela funtzionatzen, konexionatua dagoen kutxatiletako bat urpean geratu eta horrek eragindako matxura elektrikoaren ondorioz, aurreko Gune Publikoen Batzordean emandako erantzunaren arabera.

Zaintza falta horrek puntu beltz bihurtzen du

**II.2.5. Moción de control, presentada por el grupo PP, sobre la suciedad y la falta de vigilancia del bidegorri del túnel de Morlans.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 al amparo del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre la suciedad y la falta de vigilancia del bidegorri del túnel de Morlans.

JUSTIFICACIÓN

En 2014 el túnel de Morlans, por el que discurre el bidegorri que une Lugaritz con Morlans, se incluyó en un listado de las infraestructuras más bonitas para bicicletas publicado por el periódico británico “The Guardian”. Esa estampa nada tiene que ver con la situación actual de esta infraestructura utilizada a diario por centenares de ciclistas.

Entre 2017 y 2018 el túnel estuvo cerrado, cerca de un año, para acometer diversas actuaciones de mejora de esta infraestructura. En estos momentos el túnel presenta un triste aspecto con grafitis en las paredes y suciedad que se acumula en el suelo, pero además, y quizá lo más preocupante, es que las cámaras de vigilancia que están instaladas no funcionan por una avería eléctrica, como consecuencia de la inundación de una de las arquetas donde se encuentra el conexionado, según supimos por la respuesta dada en la pasada comisión de Espacio Público.

La falta de vigilancia en este túnel lo convierte en

tunela erabiltzaileentzat.Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari lehenbailehen martxan jar ditzala Morlanseko bidegorriaren tuneleko zaintza-kamerak, azpiegitura horren erabiltzaileen segurtasuna babesteko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu-taldeari tuneleko hormetako grafitiak eta metatutako zaborra garbitzeko, bai eta azpiegitura horren aldizkako mantentze-lanak egiteko ere.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 19an.

Borja Corominas Fisas
Alderdi Popularra udal-taldearen bozeramailea".

un punto negro para los usuarios. Por estos motivos presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta el Equipo de Gobierno a poner en funcionamiento las cámaras de vigilancia del túnel del bidegorri de Morlans a la mayor brevedad para salvaguardar la seguridad de los usuarios de esta infraestructura.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a limpiar los grafitis de las paredes del túnel y la basura acumulada, así como a mantener un mantenimiento periódico de dicha infraestructura.

En San Sebastián, a 19 de enero de 2023

Borja Corominas Fisas
Portavoz del grupo municipal del Partido Popular".

Eztabaida hasita, Jorge Mota Iglesias jaunak, Marta Huarte Paño andreak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Marta Huarte Paño, D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, D.ª Reyes Carrere Zabala y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, hutsik dauden etxebizitzen kasuan udalak egin beharreko ikuskapen-jarduketarik**

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la falta de actuaciones de inspección a realizar por el**

**ezari buruzkoa.**

“Ricardo Burutaran Ferré EH BILDUko udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, KONTROL-MOZIO hau aurkezten du, Udalak jenderik gabeko etxebizitzetan egin beharreko ikuskapen-jarduerak egiten ez dituela eta. Mozioa Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordeak urtarrilaren 16an izandako bileran aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak zenbait neurri arautzen ditu, etxebizitzek beren funtzio soziala betetzen dutela bermatzeko eta hutsik gera daitezen saihesteko.

Jenderik gabeko etxebizitzen okupazioa bultzatzeko neurriak ezartzeko, aurretiazko administrazio-prozedura bat izapidetu behar da, egiaztatzen duena betetzen direla etxebizitza jakin bat lege-ondoreetarako jenderik gabeko etxebizitza deklaratzeko legezko kasuak.

Ildo horretan, jenderik gabeko etxebizitzei eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurriei buruzko ekainaren 8ko 149/2021 Dekretuak arautzen du zer prozedura jarraitu behar den etxebizitza bat jenderik gabekotzat jotzeko eta Etxebizitzaren 3/2015 Legeak sortutako Jenderik gabeko Etxebizitzen Erregistroan inskribatzeko.

Aipatutako dekretuak honako hau arautzen du 4. artikuluan: «Udalek (…) egiaztatu ahal izango dute etxebizitzak bi urtez baino gehiagoz etengabe hutsik daudela, zuzenbidean onartutako modu guztietan». Eta 5. artikuluan honako hau jartzen du: «Jenderik gabeko etxebizitza

**ayuntamiento en el caso de viviendas en situación de deshabitación.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para ser tratada en Pleno, sobre la falta de actuaciones de inspección a realizar por el Ayuntamiento en el caso de viviendas en situación de deshabitación. La moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 16 de enero.

JUSTIFICACIÓN

La Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda regula una serie de medidas dirigidas a tratar de garantizar que las viviendas cumplan con su función social evitando su desocupación.

El establecimiento de las medidas necesarias para impulsar el uso de las viviendas deshabitadas exige la tramitación de un procedimiento administrativo previo que acredite la concurrencia de los supuestos legales que justifican la declaración de las viviendas deshabitadas a efectos legales.

En este sentido, el Decreto 149/2021, de 8 de junio, de Vivienda deshabitada y de medidas para el cumplimiento de la función social de la vivienda regula el procedimiento que debe seguirse para la declaración de las viviendas deshabitadas y su inscripción en el Registro de Viviendas Deshabitadas creado por la Ley 3/2015, de Vivienda.

El mentado Decreto regula en su artículo 4 lo siguiente: “Los Ayuntamientos (…), podrán acreditar la situación de desocupación permanente y continuada de las viviendas durante un tiempo superior a dos años por cuantos medios sean admitidos en derecho”. Y

deklaratzeko prozedurak ez du zehapen-izaerarik, eta ebazpena emateak ez du eragotziko dagokion zehapen-prozedura hastea, okupatu gabe egoteagatik eta etxebizitzen funtzio soziala ez betetzeagatik». Hirugarren apartatuan honako hau gehitzen du: «Prozedura hasi aurretik, etxebizitzaren erroldatze-datuei eta higiezina hutsik dagoela adierazten duten gainerako inguruabarrei buruzko txostena egiteko eskatuko da, eta ur-, gas- eta elektrizitate-kontsumoen datuak eskatuko zaizkie konpainia hornitzaileei, prozedura hastea komeni den ala ez erabakitzeko».

en su artículo 5 establece lo siguiente: “El Ayuntamiento en que se ubique la vivienda en posible situación de deshabitación podrá abrir diligencias previas de inspección de las viviendas en que concurran indicios de deshabitación”. Añadiendo en su apartado tercero lo siguiente: “Con carácter previo a la incoación del procedimiento se solicitará la emisión de informe sobre los datos de empadronamiento de la vivienda y demás circunstancias indiciarias de una situación de desocupación del inmueble, y se requerirá a las compañías suministradoras los datos de consumos de agua, gas, electricidad, a fin de determinar la conveniencia o no de iniciar el procedimiento.”

Halaber, 7. artikuluak honako hau arautzen du: «Jenderik gabeko etxebizitza deklaratzeko prozedura ofizioz hasi ahal izango du higiezina kokatuta dagoen udaleko organo eskudunak, baldin eta hutsik egotearen zantzuak badaude».

Asimismo el artículo 7 regula lo siguiente: “El procedimiento de declaración de vivienda deshabitada podrá incoarse de oficio por el órgano competente del ayuntamiento en que se sitúa el inmueble respecto al que existen indicios de desocupación.”

Ondorioz, udalek zeregin garrantzitsua izan dezakete jenderik gabeko etxebizitzak deklaratzeko prozesuan, etxebizitza horiek merkatura atera ahal izan daitezen eta benetan helburu soziala bete dezaten, hau da, benetan bertan bizi izatea.

Consecuentemente, los ayuntamientos pueden desarrollar un importante papel en el proceso de declaración de viviendas deshabitadas, al objeto de que las mismas puedan aflorar al mercado, cumpliendo el fin social que tienen las mismas; es decir, ser habitadas realmente.

Donostian, Hirigintza Sostengagarriko eta Etxebizitzako ordezkariak jakinarazi zigun Azora funtsak bakarrik 23 etxebizitza inguru dituela hutsik, Kale Nagusian, Zabaletan, Segundo Ispizuan eta Colón pasealekuan dituen etxebizitzetan.

En Donostia, recientemente la delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda nos informó de que solo el fondo Azora tiene en las viviendas de su propiedad de las calles Gran Vía, Zabaleta, Segundo Izpizua y Paseo Colón, unas 23 viviendas vacías.

Gure ustez, argi dago premiazkoa dela okupatu gabe dauden etxebizitzek hutsik egoteari uzteko legezko neurri guztiak ezartzea, eta, horrela, etxebizitzen funtzio soziala betetzea.

A nuestro juicio resulta evidente que resulta urgente que se implementen todas las medidas legales que permitan que las viviendas en situación de desocupación dejen de estarlo cumpliendo, de esta manera, con la función social de las mismas.

Hala ere, egoera premiazkoa bada ere, Udal Gobernuak, gure interpelazioari emandako erantzuna gorabehera, ez ditu behar bezala eta eraginkortasunez eman Etxebizitzaren Legean horretarako adierazitako baldintzak betetzen dituzten etxebizitza hutsak inskribatu ahal izateko aurretiazko ikerketa-lanak egiteko behar diren jarraibideak, edo, hirian den bizitegi-larrialdiko egoera ikusita, lan-erritmoa ez da inola ere beharko litzatekeena. Bestalde, udal-taldeok ez dugu horri buruzko informaziorik jaso orain arte.

Sin embargo, a pesar de lo apremiante de la situación, lo cierto es que por parte del Gobierno Municipal, y a pesar de la respuesta dada a la interpelación presentada, o no se han dado correctamente y con efectividad las instrucciones pertinentes para que se acometan los trabajos de investigación previos para poder inscribir las viviendas deshabitadas que cumplen los requisitos señalados para ello en la Ley de Vivienda o el ritmo de trabajo dista mucho de ser el requerido a la vista de la situación de emergencia habitacional que padece la ciudad. Por otra parte, los grupos municipales no hemos recibido ningún tipo de información al respecto hasta ahora.

Azpimarratu behar da jenderik gabeko etxebizitza horiek aldez aurretik inskribatzea dela hutsik egoteari uzteko eta, horrela, dagokien funtzio soziala betetzeko, hau da, jendea bizitzeko bestelako neurriak hartzeko administrazio-bidea.

Se hace preciso resaltar que la inscripción previa de las mentadas viviendas deshabitadas es el cauce administrativo requerido para poder implementar otras medidas conducentes a que las mismas dejen de estarlo y cumplan así con la función social inherente a las mismas; es decir, ser habitadas.

Hori dela eta, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak dakarren KONTROL MOZIOA:

A la vista de todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ahalik eta lasterren erabaki dezala aurretiazko ikuskapen- eta ikerketa-lan guztiak egitea, albait azkarren hasi ahal izan dadin Etxebizitzari buruzko 3/2017 Legean horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten jenderik gabeko etxebizitzak Eusko Jaurlaritzako Jenderik Gabeko Etxebizitzen Erregistroan inskribatu ahal izateko abiarazi behar den administrazio-prozedura.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, con la mayor celeridad, acuerde la ejecución de todas las labores de inspección e investigación previas para poder iniciar, en el menor tiempo posible, el procedimiento administrativo requerido para poder inscribir en el Registro de Viviendas Deshabitadas del Gobierno Vasco las viviendas deshabitadas que cumplan los requisitos señalados para ello en la Ley 3/2017 de Vivienda.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, datuak babesteko araudian xedatutakoa betez, eman diezaiela udal-talde politikoei jenderik gabeko etxebizitza horien ikuskapen- eta ikerketa-lanen aurretiazko emaitzaren informazio estatistikoa, auzoen

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, cumpliendo lo dispuesto en la normativa de Protección de Datos, proporcione a los grupos políticos municipales la información estadística del resultado preliminar de los trabajos de inspección

arabera bereizita.

Donostia, 2023ko urtarrilaren 19a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal-taldeko zinegotzia".

e investigación de las citadas viviendas deshabitadas, desagregada por barrios.

Donostia, a 19 de enero de 2023

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 22 – (9) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 22 – (9) EAJ/PNV, (5) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkezuta, Antondegi eremuaren desklasifikazioa dela eta.**

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urtarrilaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la desclasificación de la zona de Antondegi.**

"Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno, consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el 16 de enero de 2023.

JUSTIFICACIÓN

Duela bi urte jakin genuen Donostiako Udal Gobernuak Antondegin surf parke bat eraikitzeko asmoa zuela. Albistea jakin bezain pronto, eragile ugarik egin zuten proiektuaren aurka: ekologistak, surflariak, herritarrak... Baina Udal Gobernuak ez du inoiz proiektua zalantzan jarri, eta surf parkearekin aurrera jarraitzeko asmoa erakutsi du behin eta berriz.

Hala ere, hilabeteak dira proiektu honen inguruko informazio zehatzik gabe eta horri buruzko interpelazioa aurkeztu genuen urtarrilaren 13an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean. Udal Gobernuak erantzun zigun desklasifikazioa egin ahal izateko dokumentuak egiten ari direla; beraz, espedienteak aurrera jarraitzen duela eta Udal Gobernuaren asmoa dela surf parkearekin aurrera egitea.

Gaur egungo larrialdi klimatiko egoerarekin proiektu honek talka egiten du nabarmen. Gogorarazi behar dugu 2020ko martxoaren 20an Udal Gobernuak Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena argitaratu zuela. Adierazpenari lotutako ekintza planaren helburuetako bat da lurralde berrien okupazioa murriztea eta 2010eko Plan Orokorrean urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru batzuk egikaritzeari uko egitea. Hortaz, Antondegin surf parkea egiteak talka zuzena egingo luke helburu horrekin zein Larrialdi Klimatikoari aurre egiteko beste neurri batzuekin.

Gainera, EAEko plan gidaritzan jasotzen denez, hiriek ezin dute lurraren % 45 baino gehiago artifizializatu. Azken datuen arabera 2019an, Donostiako lur artifizializatuaren azalerak udal-azal osoaren % 43,39 hartzen zuen. Hau da, premiazkoa da artifizializatzeari utzi eta lurralde gehiago okupatzeari muga jartzea. Donostiako Klima 2050 Ekintza Planean jasota dago muga

Hace dos años tuvimos conocimiento de la intención del Gobierno Municipal de San Sebastián de construir un parque de surf en Antondegi. Nada más conocer la noticia, numeros agentes (ecologistas, surfistas, ciudadanía...) mostraron su opusición al proyecto. Sin embargo, el Gobierno Municipal nunca ha cuestionado el proyecto y ha mostrado reiteradamente su voluntad de seguir adelante con el parque de surf.

No obstante, transcurridos varios meses sin información concreta sobre el citado proyecto, el 13 de enero presentamos una interpelación en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, ante la cual el Gobierno Municipal respondió que están elaborando los documentos necesarios para proceder a la desclasificación del suelo; por lo que el expediente sigue su curso y la intención del Gobierno Municipal es llevar a cabo el parque de surf.

Este proyecto choca de forma clara con la situación de emergencia climática actual. En este sentido, debemos recordar que el 20 de marzo de 2020 el Gobierno Municipal publicó la Declaración de Emergencia Climática, constituyendo uno de los objetivos del plan de acción asociado a la citada declaración reducir la ocupación de nuevos suelos y renunciar a la ejecución de algunos ámbitos urbanísticos clasificados como urbanizables en el Plan General de 2010. Por lo tanto, la construcción del parque de surf Antondegi chocaría frontalmente con este objetivo y con otras medidas destinadas a hacer frente a la Emergencia Climática.

Además, el Plan Director de la CAPV señala que las ciudades no pueden artificializar más del 45 % del suelo, y, según los últimos datos disponibles, en 2019 la superficie de suelo artificializado de San Sebastián representaba el 43,39 % de la superficie total del municipio. En consecuencia, es urgente dejar de artificializar y limitar la ocupación de más suelo. En el Plan de Acción Klima 2050 de

hori 2020an jarri behar zela; hots, 2020tik aurrera ezingo zela lur gehiago artifizializatu. Eta, aldiz, Antondegin surf parkea egingo balitz, eremu berdeak artifizializatzen jarraituko litzateke.

Donostia/San Sebastián se recoge que este límite debería estar fijado para 2020, es decir, que a partir de 2020 no se podría artificializar más suelo. Sin embargo, si se llevara a cabo el proyecto de parque de surf de Antondegi, se continuaría con la artificialización de zonas verdes de nuestra ciudad.

Aditu guztiak eta udal honetako teknikariak ere bat datoz, klima aldaketa dela eta, Donostiak eurite bortitzagoak, itsas-mailaren igoera, olatu handiagoak eta bero-boladak jasango dituela datozen urteetan. Hortaz, geure hiria horretarako prestatu eta erresiliente bihurtu beharko genuke. Esaterako, hiriko berdeguneak biderkatzen baditugu, hiriko uraren sarrera ziklikoek ebakuazio-puntu ugari izango dituzte. Horrela funtzionatzen dute “esponja hiri” edo “belaki-hiri” deiturikoek. Bestalde, zuhaitz- eta landare-masa trinko eta hostotsua zabaldu duen hiriak uda beroak askoz hobeto jasango ditu. Landare-masak tenperatura egonkortuko du, itzalak eta ebapotranspirazioa ekarriz, eta horrek saihestu egingo ditu bero-kolpeek eragindako heriotzak edo gehiegizko energia-kontsumoa. Gainera, ekosistemako espezieak babestuko ditu.

Todos los expertos y técnicos de este Ayuntamiento coinciden en que, debido al cambio climático, Donostia sufrirá en los próximos años episodios de lluvias más intensas, aumento del nivel del mar, olas más grandes y olas de calor. Por lo tanto, deberíamos preparar nuestra ciudad para ello y convertirla en resiliente. Así, por ejemplo, si multiplicamos las zonas verdes urbanas, las entradas cíclicas de agua urbana tendrán muchos puntos de evacuación, que es como funcionan las denominadas “ciudades esponja”. Por otro lado, las ciudades que hayan generado densas y frondosas masas de árboles y plantas soportarán mucho mejor los veranos cálidos, ya que la masa vegetal estabilizará la temperatura, aportando sombras y evapotranspiración, evitando la muerte por golpes de calor y el consumo excesivo de energía, además de proteger las especies del ecosistema.

Antondegiko lursaila gure hiriaren gune berde bakarrenetakoa da eta hiriko gerriko berdean bertan dago. Donostia klima aldaketaren aurrean hiri erresilientea izateko, beharrezkoa dugu geure hiriko gune berdeak mantentzea eta gerriko berdea babestea.

El ámbito de Antondegi es uno de los pocos espacios verdes que quedan en nuestro municipio, situado en el propio cinturón verde de la ciudad. Por ello, para que San Sebastián sea una ciudad resiliente al cambio climático, necesitamos mantener las zonas verdes de nuestra ciudad y proteger el cinturón verde.

Mundu osoan hiriak larrialdi klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzen ari diren honetan, Donostiak ere bide bera hartu beharko luke, eta proiektu hau kontrako norabidean doa.

En un mundo en el que las ciudades están tomando medidas para hacer frente a la emergencia climática, San Sebastián debería seguir el mismo camino, y este proyecto va en sentido contrario.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo lo expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, udal honek klima larrialdiaren inguruan dituen plangintzekiko koherentziaz, bertan behera utz dezala Antondegin surf parkea egiteko proiektua.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, en coherencia con los planes municipales de emergencia climática, abandone el proyecto de ejecución del parque de surf en Antondegi.

Donostia, 2023ko urtarrilaren 19a.

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Bixente Mirena Sacristan Esteban jaunak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D. Bixente Mirena Sacristán Esteban, D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Marisol Garmendia Beloqui y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EAJ/PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 1 – EAJ/PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, hirian 2022-2023rako aurreikusitako gune estaliei buruzkoa.**

"Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las zonas cubiertas previstas en la Ciudad para 2022-2023.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento

98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urtarrilaren 16an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan ugaritu egin dira gune estaliak auzoetan jartzeko herritarren eskaerak. Osasun pandemiak ere espazio publiko irekien eta horrelako guneak auzo guztietan izatearen beharra areagotu du.

Eskaera horiei erantzuten ahalegintzeko, hainbat udal ekimen proposatu ditugu, hiri osorako berariazko plan bat egiteko beharrari aurre egiteko: hiri osoko gune estalien beharrei erantzuteko proposamenak aztertu eta gauzatzeko lan talde baten sorrera, Gune Estaliak Aztertzeko eta Proposatzeko Batzorde Ez-iraunkorra sortzeko proposamena, Udal Gobernuak hirian egin nahi dituen gune-estalien inguruko erabakiak auzo elkarteekin eztabaidatu eta partekatzeko guneen sorrera, hiriko gune estalien beharrak aztertzeko diagnostiko bat eta lehentasun zerrenda bat egiteko proposamena, aurreko agintalditik gune estaliak iragarrita zeuden auzoetarako (Gros1 eta Egia) irtenbideak bilatzeko proposamenak...

Udal Gobernua osatzen duten taldeek, ordea, proposamen horiek guztiak baztertu dituzte etengabe. Gainera, 2015etik aurrera Donostian estaltzea aurreikusten ziren hiru plazetatik2 bat bakarrik dago estalita, Altzako Harria parkea, eta, kasu horretan estalia ez da behar bezala geldit u.

2022ko maiatzean, prentsaren bidez jakin

Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada el 16 de enero de 2023 en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años, han proliferado las demandas ciudadanas de instalar espacios cubiertos en barrios. La pandemia sanitaria ha acentuado también la necesidad de espacios públicos abiertos en todos los barrios.

Para tratar de dar respuesta a estas demandas, hemos propuesto una serie de iniciativas municipales con las que hacer frente a la necesidad de elaborar un plan específico para toda la ciudad: la creación de un grupo de trabajo para analizar y materializar las propuestas de respuesta a las necesidades de espacios cubiertos de toda la ciudad, una propuesta de creación de una Comisión No Permanente para el Estudio y Propuesta de Espacios Cubiertos, la creación de espacios para debatir y compartir con las asociaciones vecinales las decisiones sobre los espacios cubiertos que el Gobierno Municipal pretende hacer en la ciudad, una propuesta de elaboración de un diagnóstico y de una lista de prioridades para analizar las necesidades de los espacios cubiertos de la ciudad, propuestas de búsqueda de soluciones a los barrios (Gros y Egia) para los que se habían anunciado espacios cubiertos desde el mandato anterior...1

Todas estas propuestas han sido rechazadas una y otra vez por los grupos que forman el Gobierno Municipal. Además, sólo una de las tres plazas2 que se preveía cubrir en San Sebastián a partir de 2015, el parque de Harria, de Altza, se encuentra cubierta y, además, dicha cubierta no ha quedado como debiera.

En mayo de 2022, tuvimos conocimiento por la

genuen Udal Gobernuak hiru parke estaliko omen zituela 2022-2023an. Hiri-proiektuen delegatuak adierazi zuenez, “Udalak hiru proiektu ditu mahai gainean, legegintzaldi honetan hiru jolasgune estaltzeko, gurasoek haurrak parkera eraman ahal izan ditzaten, baita euria egiten duen egunetan ere3 (...) Horietako bat Harria parkea izango da. Egun grisetarako beste babes bat Larratxokoa izanen da. Obrak barrutiko diruarekin finantzatuko dira. Hirugarrena oraindik definitzeko dago, mahai gainean hainbat aukera baitaude”.

prensa, de que el Gobierno Municipal cubriría tres parques en 2022-2023. Tal y como señaló la delegada de Proyectos Urbanos «el Ayuntamiento tiene tres proyectos sobre la mesa para cubrir, durante esta legislatura, tres áreas de juego para que padres y madres puedan llevar a los niños al parque, incluso en días de lluvia 3(...) Uno de ellos será el parque Harria. Otro lugar protegido para los días grises será el de Larratxo. Las obras se financiarán con los fondos destinados al Distrito Este. El tercero está por definir, y hay varias opciones sobre la mesa».

Maiatzeko batzordeetan delegatuak berak esandakoaren arabera, hiru proiektuak idazten ari ziren irizpide aldaketa batekin: hain zuzen ere, gune estalien formari zegokionez, estalki sinple, merkeago eta ariganoak jartzeko aginduarekin.

Según la propia delegada señaló en la comisión del mes de mayo, los proyectos se estaban redactando, pero un criterio había cambiado, es decir, se había dado la orden, respecto a la forma de los espacios cubiertos, de que las cubiertas fueran más sencillas, más baratas y más ligeras.

Zazpi hilabeteren ondoren, proiektuen berririk izan ez dugunez, urtarrilean Gune Publikoen Batzordean delegatua interpelatu dugu. Haren erantzuna izan da proiektuak oraindik idazteko fasean daudela, inolako xehetasunik eman gabe. Agintaldia bukatu baino lehen hiru plaza horiek estalita egongo ote diren galdetuta, delegatuak zalantzak adierazi ditu. Udal Gobernuak berriki aurkeztutako 2023rako aurrekontu proposamenean, ordea, gune estali bakarra jartzeko 300.000 euroko diru-partida dago Proiektu eta Obren atalean.

Tras siete meses, al no tener noticia ninguna respecto dichos, en enero hemos interpelado a la delegada en la Comisión de Espacios Públicos. Su respuesta ha sido que los proyectos están aún en fase de redacción, sin aportar ningún detalle al respecto. Preguntada sobre la cobertura de estas tres plazas se materializará antes de finalizar el mandato, la delegada mostró sus dudas. Sin embargo, en la propuesta de presupuesto para 2023, recientemente presentada por el Gobierno Municipal, existe una partida de 300.000 euros en el apartado de Proyectos y Obras para habilitar un único espacio cubierto.

Badirudi, hortaz, 2019-2023 agintaldia hasi ginen bezala bukatuko dugula alor honetan, berriro ere, Udal Gobernuak ez duela emandako hitza beteko.

Parece, por tanto, que el mandato 2019-2023 lo acabaremos igual que lo comenzamos respecto a este asunto, y que, una vez más, el Gobierno Municipal no va a cumplir con su compromiso.

Beraz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari agintaldia bukatu baino lehen estali nahi dituen guneen inguruko bilera antolatu dezala Udalbatza osatzen dugun talde politikoekin, proiektuen inguruko xehetasunak emateko.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari agintaldia bukatu baino lehen txosten bat idaztea, “Lurralde Batzordeak” lau urte hauetan gune estalien inguruan egindako lanaren berri emateko Udalbatza osatzen dugun talde politikoei.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, antes de la finalización de su mandato, organice una reunión con los grupos políticos que formamos parte de la Corporación Municipal sobre los espacios que pretende cubrir, para ofrecer detalles sobre dichos proyectos.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que, antes de finalizar su mandato, elabore un informe en el que se informe a los grupos políticos que formamos parte de la Corporación Municipal del trabajo realizado por la «Comisión de Territorio» en torno a los espacios cubiertos durante estos cuatro años.

San Sebastián, 19 de enero de 2023.

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Bixente Mirena Sacristan Esteban jaunak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Olaia Duarte López, D. Bixente Mirena Sacristán Esteban, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EAJ/PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENCIONES: 1 – EAJ/PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EAJ/PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (5) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 1 – EAJ/PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Udaltzaingoko Agenteen egoerari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzi Marta Huarte Pañok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean udaltzainen egoerari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

ERNE sindikatua -gehiengoa plantillan- aspalditik ari da salatzen baliabideak falta dituztela eta haien eskubideetan murrizketak aplikatu dituztela.

Gure udal-taldeak agintaldi osoan zehar aurkeztu izan ditu Udaltzaingoari eragiten dion arazo horri ahotsa emateko ekimenak. Agenteek adierazi digute haserre daudela, haien lan-

**II.2.9. Moción de control, presentada por el grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la situación de los Agentes de la Guardia Municipal.**

“Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios Generales, relativa a la situación de los Agentes de la Guardia Municipal.

JUSTIFICACIÓN

El Sindicato ERNE, mayoritario en la plantilla, lleva denunciando la falta de medios y los recortes en sus derechos desde hace mucho tiempo.

Nuestro Grupo Municipal ha venido presentando iniciativas durante toda la legislatura dando voz a la problemática que afecta a la Guardia municipal . Los agentes nos han ido trasladando su malestar

baldintzek okerrera egin dutela eta. Egoera hori luzatu egin da denboran, eta ez da konpondu oraindik.

Sindikatuetako ordezkariek jakinarazi digutenez, Zuzendaritzak alde bakarretik eta haien babesik gabe onetsi du lan-egutegia. Egin dira gaia aztertzeko bilerak, baina aurten ere ez da akordiorik lortu hitzarmenaren eranskinetan. Negoziatzeko borondaterik erakutsi gabe, Lehendakaritzak eta Udaltzaingoak jarrera immobilista hartu dute; egutegi hori berariaz jorratzeko aukera ere baztertu dute, eta ez dira saiatu proposamenak Langileen Batzordearekin adosten.

Erne sindikatuak jakinarazi digunez, planifikatu gabe kudeatzen dira plantillako baliabideak; azpimarratzen dutenez, batzuetan, agenteek ezin dute beren lana egin hala eskatzen dieten jarduketetan, eta, beraz, ez diete zerbitzu egokia ematen herritarrei. Plantillan jendea falta da, eta, horregatik, udaltzainek ezin dituzte hartu dagozkien orduak. Baliabideak eta bitartekoak falta dituzte beren eginkizunak behar bezala betetzeko. Eta zeregin batzuk ez dira egiten. Esate baterako, aspaldi da alkoholemia-kontrolik egiten ez dela.

Bestalde, kudeaketan eragin handia du agenteak prestatu beharrak, eta, zehazki, sortzen diren beharrak betetzeko kontratatzen diren errefortzuko agente berriak prestatu beharrak. Puntu honetan, kontuan hartu behar da agente berri horiei hilabeteko prestakuntza baino ez zaiela eskatzen, eta, ulertzekoa denez, haiek plantillako agenteen laguntza behar izaten dute; izan ere, agente horiek ez dute prestakuntza osoa jasotzen, eta, beraz, ezin diete erantzun eman beharreko zerbitzu gero eta ugariagoei.

por el empeoramiento de sus condiciones laborales, situación ésta, que se ha dilatado en el tiempo y que no ha sido resuelta.

Los representantes sindicales nos han informado que, una vez más, la Dirección ha aprobado el calendario de trabajo de manera unilateral y sin su apoyo. Se han celebrado reuniones para tratar este tema, pero tampoco para este año se ha alcanzado ningún acuerdo en los anexos del mismo. Lejos de mostrar una voluntad negociadora, desde Presidencia y desde la Guardia Municipal se ha adoptado una postura inmovilista, rechazando incluso la posibilidad de tratar este calendario de manera especifica y no se ha tratado de acordar las propuestas con la Comisión de Personal.

El Sindicato Erne , nos traslada que existe una falta de planificación en la gestión de los recursos de la plantilla que incide en que, en ocasiones, los agentes no puedan realizar sus funciones en actuaciones en los que son requeridos, no dando el servicio adecuado a la ciudadanía. La plantilla adolece de falta de personal, no les permiten disfrutar de horas que les corresponden. La plantilla no cuenta con los recursos y medios necesarios para llevar a cabo sus tareas debidamente. Y hay tareas que no se llegan a realizar. Este es el caso de los controles de alcoholemia, que no se llevan a cabo desde hace tiempo.

Una cuestión que incide sobremanera en la gestión, es la que obedece a la formación de los agentes, y en concreto, a los nuevos agentes de refuerzo que se contratan para cubrir las necesidades que van surgiendo. En este punto, conviene tener en cuenta que la formación que se exige a estos nuevos agentes es de tan solo un mes, y éstos necesitan comprensiblemente el apoyo de los agentes que integran la plantilla, ya que no reciben una formación completa, lo que conlleva una imposibilidad material de atender el incremento del número de servicios que son

necesarios desempeñar.

Plantilla osatzen duten agenteek aparteko ahalegina egin behar izaten dute, denbora luzez. Hori dela eta, Udalak udan eta une jakin batzuetan Arkautetik kudeatzen den poltsaren bidez egiten dituen kontratazioek ez dituzte konpontzen Udaltzaingoko langileek salatzen dituzten langile-arazoak.

Los agentes que integran la plantilla llevan soportando un esfuerzo extra durante mucho tiempo. Por ello, esto hace que las contrataciones que realiza el Ayuntamiento a través de la bolsa que se gestiona desde Arkaute durante el verano y en momentos puntuales, no solventen los problemas de personal que denuncian los trabajadores de la Guardia Municipal.

Horrek areagotu egiten du jasaten duten lan-karga. Ez da egiten plantillaren diagnostiko sakonik, eta, horregatik, ez dago plangintza eraginkorrik Udaltzaingoa osatzen duten unitateak espezializatzeko eta prestatzeko orduan sortzen diren langile-arazoei eta gabeziei aurre egiteko.

Esto incrementa la carga de trabajo que padecen. No se realiza un diagnóstico en profundidad de la plantilla, y por ello no hay una planificación eficaz que permita abordar los problemas de personal y las carencias que se puedan dar a la hora de la especialización y formación en las distintas unidades que conforman la Guardia Municipal.

Herritarrei kalitateko zerbitzua bermatu behar zaie, eta arreta hori egokia izateko konpromisoa bete. Horretarako, baliabideak eraginkortasunez kudeatu behar dira, eta lan-baldintza duinak bermatu. Tentsioak eta aparteko lan-kargak eragina dute langileen ongizatean eta osasunean.

Se debe garantizar un servicio de calidad a la ciudadanía y cumplir con el compromiso de que esta atención sea la adecuada. Esto pasa por una gestión eficaz de los recursos y garantizar unas condiciones dignas de trabajo. La tensión y la carga de trabajo extra afectan al bienestar y a la salud de los trabajadores .

Batzordean, zinegotzi ordezkariak onartu zuen Udaltzaingoan langile-gabezia dutela, Arkauteko lan-poltsatik datozen pertsona-baliabideak falta direla eta. Plantilla indartzeari buruz egin genuen galderari erantzunez, zinegotziak adierazi zuen agendan zeukatela hura aldatzeko aukera baloratzea. Hala, bada, ordezkariak, berriz ere, errefortzuko agenteak kontratatzearen aldeko apustua egiten du langile falta eta gabezia arintzeko. Azken batean, adabakiak jartzea eta plantilla ondo dimentsionatu bat eta planifikazio eraginkor bat lortzeko egin beharreko kudeaketa saihesten jarraitzea.

En Comisión, el Concejal delegado reconoció que existe una carencia de personal en la Guardia Municipal, motivada por la falta de recursos personales que provienen de la bolsa de Arkaute . Ante la pregunta que le formulamos referida a reforzar la plantilla afirmó que tenían en agenda valorar la posibilidad de replantearse una modificación de ésta. Así pues ,el delegado una vez más apuesta por la contratación de agentes de refuerzo para paliar los déficits y las carencias de personal. En definitiva, parchear y seguir evitando una gestión que conduzca a una plantilla bien dimensionada y con una eficaz planificación.

Udal-gobernuak erantzun eraginkorrak eta proportzionatuak eman behar ditu gaur egungo

El Gobierno Municipal debe dar respuestas eficaces y proporcionadas ante situaciones que son

egoeraren isla diren egoeren aurrean. Bestalde, duela gutxi Donostian gertatutakoak eta, bereziki, Hernaniko gazte bat hilik suertatu zen gertaera kontuan hartuta, gogoeta egin behar dugu egoera horiei aurre egiteko moduari buruz, batzuetan arriskuan jartzen baitira indarkeria-ekintzetan nahasirik gertatzen diren pertsonak. Arma zurien erabilerak gora egin du, 2019arekin alderatuta. 2022an, salaketa kopurua nabarmen igo da, aurreko urteekin alderatuta. Beraz, neurri egokiak eta proportzionatuak hartu behar dira, eta Donostiarako egungo segurtasun-planak egokitu. Horrek are gehiago erakusten du premiazkoa dela plantilla dimentsionatzea, plangintza egoki bat eginda, eta hura giza baliabidez eta baliabide materialez hornitzea.

reflejo del momento actual. Los hechos acontecidos en Donostia recientemente y en especial el que acabó con la vida de un jóven de Hernani, nos obligan a reflexionar la manera de abordar estas situaciones que ponen en peligro, en ocasiones, a personas que se pueden ver envueltas en actos violentos. Se está dando un aumento del uso de armas blancas respecto a 2019. En el año 2022 ha habido un incremento sustancial del número de denuncias respecto a años anteriores. Por tanto, es preciso tomar medidas adecuadas y proporcionadas, y adaptar los planes actuales de seguridad para Donostia. Esto demuestra, más si cabe, que es urgente dimensionar la plantilla con una planificación adecuada, y dotarla de los medios humanos y materiales.

Aurrera egin behar da, eta pauso sendoak eman, komunikazioa eta akordioetara iristeko borondatea errazteko. Horretarako, proposamen guztiak aintzat hartu behar dira, alderdien arteko negoziazioaren bidez, eta arazoa konpontzeko jarrera egokia izan.

Es preciso avanzar y dar pasos decididos que faciliten la comunicación y la voluntad de llegar a acuerdos considerando las diferentes propuestas a través de la vía de la negociación de las diferentes partes con la adecuada disposición que conduzca a la solución de esta problemática.

Aipatutako guztiagatik, hau da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hobetu ditzala udaltzainen lan-baldintzak, alderdi guztien beharrei erantzungo dien negoziazio baten bidez.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a mejorar las condiciones laborales de los Guardias Municipales a través de una negociación que de respuesta a las necesidades de todas las partes.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari susta dezala bitarteko agenteen prestakuntza, arlo horretan dituzten gabeziak betetze aldera.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a fomentar la formación de los agentes interinos para suplir sus carencias formativas.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurkez dezala Udaltzaingoko plantilla ahalik eta lasterren handitzeko proposamena , herritarrei kalitateko

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a presentar una propuesta de ampliación de la plantilla de la Guardia Municipal a la mayor brevedad para poder ofrecer un servicio

zerbitzu bat eman ahal izateko.

4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari konpentsa dezala Udaltzaingoko agenteek azken urteotan egindako ahalegina, pandemian areagotua eta gaur egun bere hartan dirauena, langile faltari irtenbiderik eman ez izanaren ondorioz.

Donostia, 2023ko urtarrilaren 19a

Izpta.: Marta Huarte Paño
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia".

de calidad a la ciudadanía.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a compensar el esfuerzo realizado por los Agentes del la Guardia Municipal durante los últimos años, agudizado durante la pandemia, y que se mantiene en la actualidad ante la falta de soluciones a la falta de personal.

Donostia, 19 de enero del 2023

Fdo.: Marta Huarte Paño
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Marta Huarte Paño andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Marta Huarte Paño, D. Jorge Mota Iglesias, D.ª Reyes Carrere Zabala y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

**9. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – (5) EH BILDU, (3) PP.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Guardaetxeko lanei eta etorkizuneko erabilerei buruzkoa.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urtarrilaren 16ko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las obras y usos futuros de Guardaetxe.**

“Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 16 de enero de 2023..

JUSTIFICACIÓN

La Junta de Gobierno del Gobierno Vasco aprobó

Donostiako Parte Zaharra eta Kaia Kultura Ondasun kalifikatzeko dekretua onartu zuen 2019ko apirilaren 16an, Monumentu Multzo kategorian. Gogoratu behar da onartutako espedientea Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Donostiako Udalak adostu zutela.

el 16 de abril de 2019 el Decreto por el que se calificó como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, a la Parte Vieja y al Muelle de San Sebastián. Cabe recordar que el expediente aprobado fue acordado entre el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de San Sebastián.

Babes-espediente horren helburua Parte Zaharraren morfologia kontserbatzea eta, era berean, bertako biztanleen beharren kudeaketa malgutzea da; “horien bien arteko oreka eskaintzea, alegia”. Hau da, dekretua kontserbazioaren eta beharren arteko oreka bermatzeko bitarteko bat izango litzateke, besteak beste, babes horrek aukera emango lukeelako hirigintzako jarduketa bateratua egiteko, bai babesaren ikuspegitik, bai herritarren erabileraren ikuspegitik.

El objeto de este expediente de protección es conservar la morfología de la Parte Vieja y, al mismo tiempo, flexibilizar la gestión de las necesidades de sus habitantes, ofreciendo un equilibrio entre ambas. Es decir, el decreto sería un medio para garantizar el equilibrio entre conservación y necesidades, entre otras cosas, porque esta protección permitiría la actuación urbanística conjunta, en la que se tuvieran en cuenta tanto el punto de vista de la protección como el del uso de la ciudadanía.

Urte hartako uztailaren 30ean, dekretua onartu eta 105 egunera, Donostiako Udalak Urgulleko Guardaetxea itxi zuen behin-behinean, eraikinean hainbat konponketa egin eta kudeaketarako lehiaketa publikoa aurkezteko. Guardaetxea Monumentu Multzo izendatutako eremuaren barruan dago, eta honenbestez, bertan egin beharreko edozein lan kalifikazioan ezarritako araubidera egokitu behar da; kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Sailaren baimen-txostena behar dute. Horrela adierazi zuen Udal Gobernuak 2022ko otsailaren 4an, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean Guardaetxearen egoerari buruz galdetu genuenean.

El 30 de julio del citado año, es decir, 105 días después de la aprobación del decreto, el Ayuntamiento de San Sebastián cerró provisionalmente el Guardetxe, para acometer diversas reparaciones en el edificio y para presentar un concurso público de gestión. El Guardaetxe se encuentra dentro del ámbito declarado Conjunto Monumental, por lo que cualquier obra a realizar en el mismo debe ajustarse al régimen establecido en la calificación. En este caso, se requiere un informe de autorización del Departamento de Patrimonio de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Así lo manifestó el Gobierno Municipal el 4 de febrero de 2022, cuando, en la Comisión de Servicios a las Personas, preguntamos por la situación del Guardaetxe.

346 egun geroago, lan horiek hasteko baimenei buruzko berririk gabe jarraitzen genuen. Urtetik urtera eraikinaren egoera okertzen doa. Gainera, administrazioaren utzikeria salatu eta eremua txukuntzeko bizilagunek abenduan

346 días después, seguíamos sin tener noticias sobre las autorizaciones para iniciar esas obras. Año tras año la situación del edificio va empeorando. Además, el Gobierno Municipal prohibió el trabajo comunal convocado por el

deitutako auzolana debekatu egin zuen Udal Gobernuak. Gauzak horrela, 2023ko urtarrilaren 16an berriro interpelatu genuen Udal Gobernua gaiaren inguruan, eta berritasun bakar gisa, Foru Aldundiko arkitektoarekin harremanetan jarri zirela erantzun ziguten.

vecindario, en diciembre, para denunciar la dejación de la Administración y adecentar el lugar. Así las cosas, el 16 de enero de 2023 volvimos a interpelar al Gobierno Municipal sobre el tema, y, como única novedad. nos contestaron que se habían puesto en contacto con el arquitecto de la Diputación Foral.

Hiru urte eta erdi. 42 hilabete. 182 aste. Guardaetxeak, guztira, 1.269 egun daramatza itxita eta erabilerarik gabe.

Tres años y medio. 42 meses. 182 semanas. El Guardetxe lleva un total de 1.269 días cerrado y sin uso.

2009. eta 2019. urteen artean Banda Bat elkarteak eraman zuen, Donostiako Udalaren kontzesioz, Urgulleko Guardaetxearen kudeaketa. Hamar urteko epean, espazio hori hiriko kultur gune garrantzitsu bilakatu zen. Urtero, adin guztietarako hamarnaka ekitaldi antolatzen eta ospatzen ziren bertan: kontzertuak, antzerkiak, hitzaldiak, tailerrak... Eta espazioa irekita egon zen elkarte edo eragileek erabili ahal izateko, hala nola, Orixe ikastolak. Azken horri lotuta, ezinbestekoa da Parte Zaharraren egoera berezia kontuan hartzea; izan ere, azpiegitura publiko eta komunitarioen gabezia nabarmena du auzoak.

Entre 2009 y 2019, la gestión del Guardetxe de Urgull fue asumida por la Asociación Banda Bat, mediante concesión del Ayuntamiento de San Sebastián. En el plazo de diez años, se convirtió en un importante espacio cultural de la ciudad. Cada año se organizaban y celebraban decenas de actos para todas las edades: conciertos, teatros, conferencias, talleres... Y el espacio estuvo abierto para su uso por asociaciones o agentes, como, por ejemplo, la ikastola Orixe. En este sentido, es imprescindible tener en cuenta la situación particular de la Parte Vieja, que presenta una notable carencia de infraestructuras públicas y comunitarias.

Monumentu Multzo izendapenaz PNV eta PSOE egiten ari diren kudeaketak desoreka gehiago eragin ditu Parte Zaharrean orekak baino, eta Guardaetxearen kasua horren adibide argia da. Hirigintza-jarduketa bateraturik ez da garatu, ez behintzat herritarren erabileraren ikuspegitik. Biztanleen beharren kudeaketa ere ez da malgutu. Alderantziz, bizilagunek gero eta neurri eta baldintza zorrotzagoak bete behar dituzte etxean edozein obra egiteko, jarduera ekonomiko zehatzei lotutako lokalei erraztasun guztiak jartzen zaizkien bitartean.

La gestión que están llevando a cabo el PNV y el PSOE respecto al denominado Conjunto Monumental ha generado más desequilibrios que equilibrios en la Parte Vieja, y el caso del Guardaetxe es un claro ejemplo de ello. No se han llevado a cabo actuaciones urbanísticas conjuntas, al menos desde el punto de vista del uso de la ciudadanía. Tampoco se ha flexibilizado la gestión de las necesidades de la población. Por el contrario, las vecinas y vecinos deben cumplir unas medidas y condiciones cada vez más exigentes para hacer cualquier tipo de obra en el hogar, mientras que se dan todas las facilidades a los locales vinculados a actividades económicas concretas.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante

behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari premiaz eta lehentasunez kudeatu dezala Guardaetxeko lanak hasteko beharrezkoak diren baimenak lortzea.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a gestionar con carácter urgente y preferente la obtención de las autorizaciones necesarias para el inicio de las obras en el Guardaetxe.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari abiatu dezala, Guardaetxeko lanak amaitu arte itxaron gabe, eraikinak etorkizunean izan litzakeen erabilerei buruzko harreman prozesu bat auzoko eragile eta elkarte interesatuekin.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a iniciar, sin esperar a la finalización de las obras del Guardaetxe, un proceso de relación con los agentes y asociaciones del barrio interesadas en los posibles usos futuros del edificio.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 19an

San Sebastián, 19 de enero de 2023.

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (4) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (4) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**AURKAKO BOTOAK: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS EN CONTRA: 14 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Udalarentzako bideozaintza azpiegiturak hornitzeko, eta horiek mantentzeko eta abian jartzeko zerbitzuak kontratatzeari buruzkoa**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa, 2023ko urtarrilaren 16an, Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 14an, DonostiaTIK erakundeko Artezkaritza Kontseiluan erabakigai izan genuen Udalarentzako bideozaintza azpiegiturak hornitzeko, eta horiek mantentzeko eta abian jartzeko zerbitzuak kontratatzea. Kamera zaharren ordez teknologia berria duten kamerak

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la contratación de los servicios de suministro, mantenimiento y puesta en marcha de infraestructuras de videovigilancia para el Ayuntamiento.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada el 16 de enero de 2023 en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 14 de diciembre, el Consejo Rector de DonostiaTIK acordó la contratación de los servicios de suministro, mantenimiento y puesta en marcha de infraestructuras de videovigilancia para el Ayuntamiento de San Sebastián. Se sustituirán las cámaras antiguas por cámaras de nueva

jarriko dira, baita Adimen Artifizialdun (AA) funtzionalitate berriak izango dituzten grabagailuak eta sistema zentralak ere; horien bidez, besteren artean, bideokamerek jasotako irudien analitika adimenduna egingo da:

• Bereizmen eta kalitate handiko IP kamera erosiko dira, edozein meteorologia eta argiztapen egoeratan (gauez eta egunez) koloretako irudien grabazio jarraitua lortzeko; gainera, kanporako bezala, udal eraikin barruetarako ere hartuko dira. Era berean, operatibo berezietarako (Aste Nagusia, estropadak, Santomas, kirol ekitaldi handiak...) aire zabaleko bideozaintza zerbitzua ere kontratuaren parte izango da (kamera profesionaleko 2 unitatetik 8ra bitarte) eta horiek ere autoikaskuntzako bideo analitika egiteko gaitasuna izango dute.

• Bideozaintza kontrol zentroan hiru hilabetez gorde ahalko dira grabazioak, eta edozein grabaziotan bilaketak egiteko gai izango da sistema: forentse mailakoak, pertsonen eta ibilgailuen sailkapenarekin; AAn oinarritutakoak (pertsona eta ibilgailu zehatzak bilatzea deskribapen fisikoaren arabera, edota portaera anomaloak automatikoki detektatzea) eta Antzemate Fazialaren bidezko bilaketak (udaletxeko korridoreetako eta Anoetako kamerak).

• Lizitazio prezioa, guztira, 358.393,19 €koa izango da, eta NEXT funtsen laguntza izango du. Europako Batasunak ezarritako epe estuek eragin dute izapideak arindu behar izatea.

Arrazoibideen txostenean irakur daitekeenez, “Segurtasuna gure gizartearen oinarrietako bat da. Balio juridikoa izateaz gain, askatasunaren eta berdintasunaren oinarrian dago, eta gizabanakoen erabateko garapenean laguntzen du. Ikuspegi horretan, Donostiako Udalaren

tecnología, así como por grabadores y sistemas centrales con nuevas funcionalidades de Inteligencia Artificial (IA), a través de las cuales, entre otras cosas, se realizará una analítica inteligente de las imágenes captadas por las videocámaras:

• Se adquirirán cámaras IP de alta resolución y calidad, para la grabación continua de imágenes en color, en cualquier situación meteorológica y de iluminación (nocturna y diurna), tanto para el interior de los edificios como para el exterior. Asimismo, el servicio de videovigilancia al aire libre para operativos especiales (Semana Grande, Regatas, Santo Tomás, grandes eventos deportivos...) formará también parte del contrato (de dos a ocho unidades de cámaras profesionales), que estarán también capacitados para realizar la analítica de vídeo con capacidad de autoaprendizaje.

• En el centro de control de videovigilancia, se podrán guardar las grabaciones durante tres meses, y el sistema será capaz de hacer búsquedas en cualquier grabación: búsquedas forenses (con clasificación de personas y vehículos), búsquedas basadas en la inteligencia artificial (búsqueda de personas y vehículos concretos según descripción física, o detección automática de comportamientos anómalos) y búsqueda por Detección Facial (cámaras en los pasillos del Ayuntamiento y en Anoeta).

• El precio total de licitación será de 358.393,19 € y contará con la ayuda de los fondos europeos NEXT. Los estrechos plazos dados por la Unión Europea han hecho necesario agilizar los trámites.

Tal y como se puede leer en el informe justificativo, la Seguridad es uno de los pilares de nuestra sociedad. Además de tener valor jurídico, está en la base de la libertad y la igualdad y contribuye al pleno desarrollo de las personas. Desde esta perspectiva, la progresiva renovación integrada y

bideozaintzako azpiegituren pixkanakako berrikuntza integratua eta zentralizatua balizko arrisku edo delituei aurrea hartzeko eta zaintzeko neurri gisa eratzen da. Era berean, erabiltzaileen segurtasun- edo informazio-premia legitimoak ase nahi dira, pertsonen edo ondasunen ukigabetasuna eta pribatutasuna zainduz, eskubideen balizko urraketen, nahita egindako mehatxuen eta ustekabeko edo naturatik eratorritako arriskuen aurrean. Horrela, segurtasun publikoa bermatzen, arau-hausteak prebenitzen eta bere jarduketa eta ikerketekin lotutako prozedurei informazioa ematen lagundu nahi da".

Aitzitik, ez plegu teknikoetan, ez Arrazoitzeko txostenean, ez zaio aipamenik egiten pertsona fisikoen oinarrizko eskubideak eta askatasunak babestu beharrari, ezta intimitaterako eskubidea zaindu beharrari ere. Kontuan izatekoa da Europar Batasunak horiek bermatzeko eskatzen diela kide diren estatuetako erakundeei. Hain zuzen ere, irizpide eta betekizun horiek jasota ageri dira pertsona fisikoen datu pertsonalen tratamenduari eta babesari buruzko Europar Batasunaren 2016/679 Erregelamenduan, baita estatuko 3/2018 Lege Organikoan ere. Gainera, Datuak Babesteko Europako Batzordeak (DBEB) jarraibide sorta bat emana du bideozaintza ekipamenduak erabiltzen dituzten Europar Batasuneko erakunde eta organismoei Erregelamendua nola bete eta bideozaintza arduraz nola erabili aholkatzeko, eta, aldi berean, berme eraginkorrak ezartzeko. Horien guztien inguruan, ordea, ez du aipamenik egiten DonostiaTIK erakundeak lizitatzekoa duen kontratuan.

Hartzeko genuen erabakiaren garrantziaz jakitun, segurtasun sistema horren kudeaketaren inguruko hainbat galdera egin genituen Artezkaritza Kontseiluan, baina erantzun zehatzik ez genuen jaso: irizpideak

centralizada de las infraestructuras de videovigilancia del Ayuntamiento de San Sebastián se configura como una medida de prevención y vigilancia de posibles riesgos o delitos. Asimismo, se pretende satisfacer las legítimas necesidades de seguridad e información de las personas usuarias, velando por la indemnidad y privacidad de las personas o los bienes, frente a posibles violaciones de derechos, amenazas intencionadas y riesgos inesperados o derivados de la naturaleza. De este modo, se pretende contribuir a garantizar la seguridad pública, prevenir infracciones y proporcionar información en los procedimientos relacionados con las actuaciones e investigaciones correspondientes.

No obstante, ni en los pliegos técnicos ni en el informe justificativo se hace referencia alguna al deber de proteger los derechos y libertades fundamentales de las personas físicas, ni al deber de preservar el derecho a la intimidad. Hay que tener en cuenta que la Unión Europea exige a los organismos de los Estados miembros la garantía de estos derechos. Concretamente, estos criterios y requisitos se recogen en el Reglamento 2016/679 de la Unión Europea sobre tratamiento y protección de datos personales de las personas físicas y en la Ley Orgánica estatal 3/2018. Además, la Comisión Europea de Protección de Datos (CEPD) ha dictado una serie de instrucciones para asesorar a las instituciones y organismos de la Unión Europea que utilizan equipos de videovigilancia sobre el cumplimiento del Reglamento y el uso responsable de la videovigilancia, estableciendo al mismo tiempo garantías efectivas. Sin embargo, en el contrato a licitar por DonostiaTIK no se hace mención alguna al respecto.

Conscientes de la importancia de la decisión que se debía tomar, formulamos, en el Consejo Rector, una serie de preguntas sobre la gestión de este sistema de seguridad, sin que se nos diera una respuesta concreta: lo único que se nos dijo es que

Udaltzaingoko zuzendaritzak eman dituela besterik ez. Horiek horrela, udal batzordean hainbat galdera zehatz egin genizkion alkateari, eta kargu hartu genion hain erabaki garrantzitsua korrika eta presaka, gogoeta sakonagorik egin gabe eta gaia aztertzeko lan saio bat ere deitu gabe hartzeagatik. Gainera, galdetu genion zergatik ez duen mahai politiko eta teknikorik eratu bideozaintza plataformak herritarren eta udal langileen oinarrizko eskubideetan eta intimitaterako eskubidean izan ditzakeen eraginak jorratzeko.

los criterios han sido proporcionados por la Dirección de la Policía Municipal. Por ello, en la comisión municipal, planteamos varias preguntas concretas al alcalde, le exigimos responsabilidades por tomar una decisión tan importante de forma tan rápida y precipitada, sin realizar una reflexión más profunda y sin convocar ni siquiera una sesión de trabajo para analizar el tema. Además, le preguntamos por qué no se ha constituido una mesa política y técnica para tratar los posibles efectos de la plataforma de videovigilancia sobre los derechos fundamentales y el derecho a la intimidad de la ciudadanía y del personal municipal.

Udal Gobernuak erantzun zuen erabaki honekin ez dela presaka aritu, baina ez dira egin legeek eskatutako aurrelanak, ondoren zehaztuko dugun bezala, eta Arrazoizko txostenak ere argi adierazten du premiazko prozedura erabili dela tramitazioan.

El Gobierno municipal contestó que con respecto a esta decisión no se ha actuado con urgencia. Sin embargo, no se han llevado a cabo las tareas previas exigidas por las leyes, como luego expondremos. Además, el propio Informe Justificativo indica claramente que se ha utilizado el procedimiento de urgencia en la tramitación.

Bestalde, Segurtasuneko zinegotzi ordezkariak adierazi zuen Arau hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteko 7/2021 Lege Organikoaren arabera hartu direla bideozaintza plataformaren ingurukoak, eta ez dela norbanakoaren ohorearen aurkakotzat hartzen irudi horiekin segurtasun indarrek egin dezaketen erabilera. Edonola, zinegotzi ordezkariak ez zuen aipatu lege horrek berak agintzen duela, 16. artikuluan, batetik, bide edo leku publikoetan bideo kamera finkoak jartzen direnean, tratamenduaren arduradunak proportzionaltasun printzipioaren balorazioa egin beharko duela, egokitasunaren eta gutxieneko esku hartzearen alderdietatik; eta bestetik, EH Bilduk gogorarazi bezala, egin nahi den tratamenduari buruzko arriskuen azterketa edo datuen babeserako eraginaren ebaluazioa egin beharko duela, herritarrentzat sor daitekeen kalte mailaren eta lortu nahi den

Por su parte, el concejal delegado de Seguridad manifestó que todo lo relativo a la plataforma de vigilancia se ha establecido de acuerdo con la Ley Orgánica 7/2021, de protección de datos personales tratados para fines de prevención, detección, investigación y enjuiciamiento de infracciones penales y de ejecución de sanciones penales, y no se considera contrario al honor del individuo el uso que las fuerzas de seguridad puedan hacer de tales imágenes. En cualquier caso, el concejal delegado no menciona que la misma Ley establece, en su artículo 16, que cuando se instalen videocámaras fijas en vías o lugares públicos, la persona responsable del tratamiento deberá realizar una valoración del principio de proporcionalidad en su doble versión de idoneidad e intervención mínima. Asimismo, como recuerda EH Bildu, deberá llevar a cabo un análisis de los riesgos o una evaluación de impacto de protección de datos relativo al tratamiento que se pretenda realizar, en función del nivel de perjuicio que se pueda derivar para la ciudadanía y

helburuaren arabera. Aitzitik, DonostiaTIK erakundearen gainean utzi nahi izan zuen horren ardura, tratamenduaren arduraduna Udaltzaingoko komisariorde bat izango dela aipatu bazuen ere.

Gainera, aurkaratzeko herritarrek duten eskubidea gauzatzeko moduaz galdetu zuen EH Bilduk, baina zinegotzi ordezkariak erantzun zuen poliziak ez duela horretarako beharkizunik. Horren aurrean, gogorarazi behar dugu 7/2021 Lege Organikoaren 23. artikuluak aurkaratzeko herritarrek duten eskubidea bermatzen duela, eta aukera hori murriztekotan (24. artikulua) tratamenduaren arduradunak idatziz jakinarazi beharko diola interesdunari, atzerapen bidegaberik gabe, eta, nolanahi ere, murrizketa horren berri izan eta hilabeteko epean, murrizketaren arrazoiak zein diren eta datuak babesteko agintaritzari erreklamazioa aurkezteko aukerak zein diren; hori guztia aipatzea ere ahaztu zuen.

Horrekin lotuta, EH Bilduk galdetu zuen nola bermatuko duen Udal Gobernuak udal langileen oinarrizko eskubide eta askatasunen babesa, bereziki intimitaterako eskubidearena, jakinik udal eraikinetan ere jarriko direla kamerak. Zinegotzi ordezkariak erantzun zuen panelen bidez adieraziko dela kamerak jarrita daudela, baina kontuan izan behar da 3/2018 Lege Organikoaren 89. artikuluan agintzen duela enplegatzaileek irudien tratamenduaren berri eman beharko dielа aldez aurretik, argi eta zehatz, langile publikoei eta, hala badagokio, haien ordezkariei.

Era berean, galdetu genuen bideozaintza sistemak datu baserik edo algoritmorik sortuko duen, jakinik pertsona zehatzak deskribapen fisikoaren arabera bilatzeko, bereizteko eta sailkatzeko gaitasuna izango duela, eta Europar Batasunaren 2016/679 Erregelamenduaren 9.

de la finalidad perseguida. Además, el concejal quiso hacer recaer la responsabilidad sobre el organismo DonostiaTIK, aunque mencionó que el responsable del tratamiento será un subcomisario de la Policía Local.

Por otro lado, EH Bildu preguntó sobre cómo hacer efectivo el derecho de los ciudadanos a impugnar, pero el concejal delegado respondió que esa obligación no imcumbe a la policía. Ante ello, debemos recordar que el artículo 23 de la Ley Orgánica 7/2021 garantiza el derecho de la ciudadanía a impugnar, y que, si se restringiera esta posibilidad (artículo 24), el responsable del tratamiento informará por escrito al interesado sin dilación indebida y, en todo caso, en el plazo de un mes desde que se tenga conocimiento, de dicha restricción, de las razones de la misma, así como de las posibilidades de presentar una reclamación ante la autoridad de protección de datos. El concejal también olvidó hacer referencia a todos estos aspectos.

A este respecto, EH Bildu preguntó cómo va a garantizar el Gobierno Municipal la protección de los derechos y libertades fundamentales de los trabajadores municipales, en especial del derecho a la intimidad, sabiendo que las cámaras se instalarán también en los edificios municipales. El concejal delegado contestó que a través de paneles se indicará que las cámaras están instaladas. Pero hay que tener en cuenta que el artículo 89 de la Ley Orgánica 3/2018 establece que los empleadores deberán informar previamente, de forma clara y precisa, a los trabajadores públicos y, en su caso, a sus representantes, del tratamiento de las imágenes.

Asimismo, preguntamos si el sistema de videovigilancia generará una base de datos o algoritmo, sabiendo que sería capaz de buscar, distinguir y clasificar a una persona concreta según la descripción física, y que el artículo 9 del Reglamento 2016/679 de la Unión Europea prohíbe

artikuluak argiki debekatzen duela datu pertsonalak kategoria berezien arabera tratatzea. Zinegotziak erantzun zuen ez zela horrelakorik sortuko, eta datuak eskuz tratatuko direla. Alde horretatik ere, EH Bilduren galderari erantzunez, zinegotziak adierazi zuen txertatu dela genero ikuspegia segurtasuneko bideozaintza plataforman, kameren kokapenak kontuan izan baitu hiriko gune kritikoen mapa.

Azkenik, EH Bilduk galdetu zuen irudiak zenbat denboraz gordeko diren, plegu teknikoek hiru hilabeteko epea aipatzen baitute, baina 3/2018 Lege Organikoaren 22. artikuluak hilabeteko muga jartzen baitu; zinegotziak ez zuen argitzerik izan. Era berean galdetu genuen zer aldatu den hiriko egoeran hain gaitasun aurreratuak dituen bideozaintza sistema ezartzeko, jakinik 2011tik gaur arte jarrita egon diren kamerek trafikoa zaintzeko eginkizuna besterik ez dutela izan, eta mugakizun hori horrela jasota ageri dela Alkatetzaren 2011ko apirileko ebazpenean. Zinegotziak azaldu zuen segurtasun ezaren sentsazio gero eta handiagoa dagoela herritarren artean.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala, bideozaintzako irudien tratamendua dela eta, 7/2021 Lege Organikoaren 16. artikuluak agindu bezala, batetik, proportzionaltasun printzipioaren balorazioa, egokitasunaren eta gutxieneko esku hartzearen alderdiak kontuan izanik; eta bestetik, egin nahi den tratamenduari buruzko arriskuen azterketa edo datuen babeserako eraginaren ebaluazioa egin dezala,

claramente el tratamiento de datos personales por categorías especiales. El concejal contestó que no se iba a crear nada semejante, y que los datos se tratarán manualmente. En este sentido, respondiendo a la pregunta de EH Bildu, el concejal manifestó que se ha incorporado la perspectiva de género en la plataforma de videovigilancia de seguridad, ya que la ubicación de las cámaras ha tenido en cuenta el mapa de zonas críticas de la ciudad.

Por último, EH Bildu preguntó por el tiempo de conservación de las imágenes, ya que los pliegos técnicos hacen referencia un plazo de tres meses, cuando el artículo 22 de la Ley Orgánica 3/2018 establece el límite de un mes. El concejal no supo aclarar esta cuestión. Asimismo, preguntamos qué es lo que ha cambiado en la situación de la ciudad para que se implante un sistema de videovigilancia con unas capacidades tan avanzadas, teniendo en cuenta que las cámaras que han estado instaladas desde 2011 hasta la fecha no han tenido otra función que la vigilancia del tráfico, y que dicha limitación se recoge en la Resolución de Alcaldía de abril de 2011. El concejal explicó que existe una sensación cada vez mayor de inseguridad entre la ciudadanía.

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que cumpla, en relación con el tratamiento de las imágenes de videovigilancia, lo dispuesto en el artículo 16 de la Ley Orgánica 7/2021, es decir, que haga una valoración del principio de proporcionalidad en su doble versión de idoneidad e intervención mínima, así como un análisis de riesgos o evaluación del impacto en la protección de datos sobre el tratamiento pretendido, en función del grado de

herritarrentzat sor daitekeen kalte mailaren eta lortu nahi den helburuaren arabera; eta udal taldeoi eman diezagula horien emaitzen berri.

daño que pueda generarse a la ciudadanía y de la finalidad que se persigue. Asimismo, que nos informe a los grupos municipales de los resultados de dichas valoraciones y análisis.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal langileekin eta haien ordezkariekin azter dezala, argi eta zehatz, bideozaintzako irudien tratamendua, plataforma hori indarrean jarri aurretik, 3/2018 Lege Organikoaren 89. artikuluak agindu bezala.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que analice con claridad y precisión, con los trabajadores del ayuntamiento y sus representantes, el tratamiento de las imágenes de videovigilancia, antes de la entrada en vigor de dicha plataforma, tal y como prescribe el artículo 89 de la Ley Orgánica 3/2018.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari mahai politiko-tekniko bat eratu dezala bideozaintza plataformaren kudeaketaren eta sistema horrek egingo duen irudien tratamenduaren inguruan aritzeko, alderdi eta ondorio garrantzitsuak baititu herritarron eta udal langileen oinarrizko eskubideei eta askatasunei lotuta.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a constituir una mesa político-técnica sobre la gestión de la plataforma de videovigilancia y el tratamiento de las imágenes que realizará este sistema, ya que tiene importantes consecuencias en relación con los derechos y libertades fundamentales de los ciudadanos y de los trabajadores municipales.

2023ko urtarrilaren 19an.

19 de enero de 2023

Zigor Etxeburua Urbizu
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH BILDU”.

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Bixente Mirena Sacristan Esteban jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Zigor Etxeburua Urbizu, D. Bixente Mirena Sacristán Esteban, D. Borja Corominas Fisas y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (4) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (9) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BATAK ETA HOGEITA HAMAZAZPIAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS TRECE HORAS Y TREINTA Y SIETE MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**